


PROGRAMA  
EUSKARA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2021



Bilbao


gizartea eta kultura  
garaikidea

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

# Aimar Arriola Pablo Marterekin elkarrizketan

*Forma desira*

AIMAR ARRIOLAREKIN HIZKETAN,  
PABLO MARTE ARTISTAK JORRATZEN  
ARI DEN GAI BATZUK AZTERTUKO  
DITU, HALA NOLA PASIBOTASUNA,  
GELDOTASUNA, INTIMITATEA ETA  
HAREN DISTANTZIAK



Una fuerte imaginación genera acontecimiento o Las ideas sobre las cosas

*Forma desira* lanaren barruan, hau da, Aimar Arriola komisarioak artista AZKide gisa garatzen duen ikerketa-proiektuan, Pablo Marte artista, idazle eta ikertzaileak *Una fuerte imaginación genera acontecimiento o Las ideas sobre las cosas* izeneko bere lana aurkeztuko du maiatzaren 13an, Aimar Arriolarekin batera. Gainera, *Forma desira bat* lanean izandako parte-hartze gisa, Pablo Martek lan-dinamika irekia aurkeztuko du maiatzaren 11 eta 12an, proiektuan interesa duten guztiei zabalik.

### **Pablo Marte Irudimen sendoak gertaera sortzen du edo Gauzei buruzko ideiak**

Joan den udan artistak egun batzuk eman zituen Frantziako Dordoina haranetik. Montaigneren gaztelua bisitatu nahi zuen. Irakurria zuen Michel de Montaignek saiakera modernoa asmatu zuen dorrearen goialdean ikus zitezkeela filosofoak sabaiko habeetan oroigarri gisa idatzi zituen esaldiak, grekoz eta latinez. Artistak inskripzio zehatz bat bilatzen zuen, oso hurbil sentitzen baitzuen: Fortis imaginatio generat casum (Irudimen sendoak gertaera sortzen du). Baina han, habe haien azpian, ez zuen aurkitu. Beste hau aurkitu zuen berriz:

*ΤΑΡΑΣΣΕΙ ΤΟΥΣ ΑΝΘΡΩΠΟΥΣ ΟΥ ΤΑ ΠΡΑΓΜΑΤΑ ΑΔΔΑ ΤΑ ΠΕΡΙ ΤΩΝ ΠΡΑΓΜΑΤΩΝ ΔΟΓΜΑΤΑ*

(Giza oinazearen kausak: ez gauzak, gauzei buruzko ideiak baizik).

Bi esaldi horien artean, han-hemenka ibiltzeko espazio bat zabaltzen da, non, pasibotasuna, geldotasuna, intimitatea eta haren distantziak lantzen ari den artistak «egitura plurinarratiboa» planteatuko duen, lirikaren eta zori objektiboaren arteko bilera.



**PABLO MARTE** (Cádiz, 1975) artista, idazlea eta ikertzailea da. Zinema eta telebista errealizazioan graduatua Bartzelonako Ikus-entzunezkoen Udal Eskolan eta Arte Ederretan

lizentziaduna Bartzelonako Unibertsitatean. Lana erakutsi du, besteak beste, toki hauetan: C3A (Kordoba), BilbaoArte Fundazioa (Bilbo), Galería Carreras Múgica (Bilbo), HANGAR (Lisboa), Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao (Bilbo), Tabakalera (Donostia), Kadist Art Foundation (Paris) eta Artium (Gasteiz). Halaber, *Again, against* (2013) antzezlanaren eta *Pretty Woman* (2015) liburuaren egilea da, biak Consonnik ekoiztiak

////////////////////////////////////  
**Lan-dinamika Pablo Marterekin**  
Maiatzak 11 eta 12  
Asteartea eta asteazkena  
Lantegia 1

Informazioa eta izen-emateak azkunazentroa.eus webgunean

---

**Aimar Arriola eta Pablo Marteren arteko elkarrizketa**  
Maiatzak 13, osteguna

Maiatzak 13, osteguna  
18:30  
Lantegia 1

Sarrera dohainik, aldez aurretik izena emanda azkunazentroa.eus helbidean, leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////

